

ELSNko ON LINE SAREAREN KATALOGAZIO KOOPERATIBOARI BURUZKO BILERAREN AKTA

Eguna: 2005eko maiatzaren 31

Tokia: Lakua II-ko 2. gela, Eusko Jaurlaritza

Bertaratuak

| | |
|--|------------|
| Loizate Uribarrena, Josu | Abadiño |
| Diaz Lopez, Karmele | Amurrio |
| Alzola Larrañaga, Judith | Andoain |
| Agiriano Altuna, Asun | Arrasate |
| Bikandi Jaio, Adela | Arrasate |
| López de Ciriza, Mertxe | Arrasate |
| Aldekoa Arriaga, Ion | Berriz |
| Beltrán de Heredia Kerejazu, Estibaliz | Deba |
| Orobio-Urrutia legorburu, Jose Ángel | Durango |
| Alberdi Zubiaurre, Eva | Eibar |
| Isla Gómez, Yolanda | Eibar |
| Gómez Santamaría, José Angel | Eltziego |
| Azurmendi Uriarte, Miren Josebe | Erandio |
| Gago Pascual, Sara | Ermua |
| Pascual Carvajal, M ^a José | Errenteria |
| Loiti Loiti, Oskar | Eskoriatza |
| Barrutia Viñé, Elena | Etxebarri |
| Ramos, Koldo | Etxebarri |
| Anchía Rioseco, María | Getxo |
| Regalado Herrero, Anabel | Getxo |
| González Martín, Raquel | Hernani |
| Ceberio Castro, Iñaki | Irun |
| González Marcos, Pati | Irun |
| Erostarbe Aranburu, Jasone | Legazpi |
| Idoyaga, Ibon | Leioa |

| | |
|--|----------------------|
| Layana, Goyo | Leioa |
| Marcos Maciá, Sonia | Liburutegi Zerbitzua |
| Martínez Fernández, Lola | Liburutegi Zerbitzua |
| Pulgar Vernalte, Francisca | Liburutegi Zerbitzua |
| Larre Muñoz, Susana | Tolosa |
| Arriola Yagüe, Iñaki | Vitoria-Gasteiz |
| Dorronsoró Pérez de Carcamo, Ana | Vitoria-Gasteiz |
| Dorronsoró Pérez de Carcamo, Teresa | Vitoria-Gasteiz |
| Romano Viguri, Carlos | Vitoria-Gasteiz |
| Ruiz de Gauna Moreno, Santiago Alfonso | Vitoria-Gasteiz |

Gai-zerrenda

1. Euskadiko liburutegi publikoen on line katalogoa (Katalogobateratua)
 - a. Ezarpena eta garapena
 - b. Liburutegi Zerbitzuaren eta udal liburutegien arteko erlazioa
 - c. Lankidetzatza
2. Katalogoaren ebaluazioa (2004ko maiatzetik 2005eko maiatzera)
 - a. Katalogoaren kalitaterantz
 - b. Prozedura eskuliburuak
 - c. Erregistroak zuzentzeko protokoloa
 - d. Katalogatzeko baimenak
3. Lantaldeak sortzea:
 - a. Proposamenak
4. Informazioa trukatzeko gunea
5. Galde-eskeak

1. Euskadiko liburutegi publikoen on line katalogoa (Katalogobateratua)

Denok dakigun bezala, 2004ko maiatzean Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak on line katalogoaren proiektua abian jarri zuen. Beraz, eta udal liburutegietan ezarri zela urtebete igaro ondoren eta lankidetzan oinarrituriko lana egin ostean, beharrezkotzat jo da ELSNko on line sareko katalogoaren egoera aztertzea, partaideen artean alde indartsuak eta ahulak berrikusiz. Liburutegi Zerbitzuaren eta liburutegi parte-hartzaileen arteko erlazioaren garrantzia azpimarratzen da, eta parte hartzen duten liburutegi guztiek lankidetzan oinarritutako lan-metodologiara egokitu beharra nabarmentzen da.

2. Katalogoaren ebaluazioa (2004ko maiatzetik 2005eko maiatzera)

Katalogoaren kalitatea ebaluatzen da eta bikoiztutako erregistro ugari daudela onartzen da. Bestalde, azaltzen da katalogoaren depurazioa edo arazketa hasteko karga guztiak bukatu arte (2005eko bukaera) itxarotea komenigarria dela, oraindik katalogo berrietatik erregistroak migratu behar direlako eta egindako lanean eragina izan dezakeelako. Arazketaren premia azpimarratzen da eta 2006rako helburu nagusi gisa katalogoaren arazketa sistematikoa proposatzen da.

Erregistroen kalitate ona lortzeko, prozedura eskuliburuaren garrantzia nabarmentzen da.

Katalogatzeko baimenak emateko arazoak zeintzuk izan diren azaltzen dira: liburutegiaren tamaina, langile-kopurua, erosketetan inbertitutako dirua eta liburuzainen iritzi edota baliabideak. Halaber, aipatzen da baimen horiek gehitu daitezkeela funts bereziak dituzten liburutegietara edota oraindik sarean ez dauden baina dokumentuak erosi dituztenetara.

Sarean funtzionatzen ari garen urte honetan zehar, bai Liburutegi Zerbitzutik bai udal liburutegietatik erregistroak zuzentzeko prozedura komuna ezartzearen beharra ikusi da; horregatik, Liburutegi Zerbitzuaren proposamena, *Erregistroak zuzentzeko protokoloa*,¹ azaltzen da.

3. Lantaldeak sortzea

Katalogoaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, Liburutegi Zerbitzuak espezializatutako lantaldeak sortzea proposatzen du, eta lantalde bakoitza gutxi gorabehera 5 bat liburutegik osatuko lukete. Lantalde bakoitzak ordezkari bana hautatuko luke, eta katalogazio orokorreko taldean parte hartuko lukete.

Proposatutako taldeak hauexek dira:

1. Monografien katalogazioa

¹ Ikus erantsitako dokumentua *Katalogazio kooperatiborako proposamenak*

2. Haur eta gazte funtsaren katalogazioa eta sailkapena
3. Material berezien katalogazioa eta sailkapena
4. Aldizkako argitalpenen kontrola

Katalogazio gaietan lantaldeak sortzeko proposamena onartzen da eta liburutegiei gehien interesatzen zaien taldean izena emateko eskatzen zaie.

Parte-hartzaileak

1. *Monografiaren katalogazioa*. Amurrio, Eibar, Erandio, Ermua, Errenteria, Getxo, Hernani.
2. *Haur eta gazte funtsen katalogazioa eta sailkapena*. Arrasate, Eibar, Irun, Getxo, Leioa, Tolosa.
3. *Material berezien katalogazioa eta sailkapena*. Arrasate, Berriz, Eskoriatza, Montehermoso, Gasteiz.
4. *Aldizkako argitalpenen kontrola*. Ikastaroa egin arte (iraila) itxarongo da lantaldea osatzeko².

Lan metodologia

Liburutegi Zerbitzuak agiri labur bat idazteko konpromisoa hartu du eta bertan lantaldeen funtzionamendua agertuko da (prestakuntza beharrak, zereginak, komunikatzeko moduak, laneko bilerak, etab.). Idatzi bezain laster bidaliko da dokumentua.

4. Informazioa trukatzeko gunea

Liburutegietako ordezkariak egin dituzten ekarpenak batez ere hauexek lirateke:

- Sarritan katalogazio arauak jarraitzen ez diren ustea, batez ere eleberrien kasuan (erregistro ugarik generoko T655 etiketarik ez dute).
- Aurrekoaren harira, liburutegi askok irizten diote maiz ezinezkoa dela eleberri batzuk genero zehatz batean kokatzea.
- Haurren euskarri generikoa gaizki katalogatu izanaren kexa (erregistro askotan hartzailearen T521 oharra falta da, gai okerrak, etab.)

Liburutegi Zerbitzuak proposatutako erregistroak zuzentzeko protokoloa eztabaidatu da, eta haxe erabaki da:

² Irungo eta Berrizko liburutegiek lantalde honetan parte hartuko dute, aldizkako argitalpenen moduluan esperientzia baitute.

1. Erregistro okerrak

- Akats tipografikoak edota katalogazio akatsak. (sarrerak gaizki eginak, CDU zaharra, etab.). Zuzenean zuzenduko dira katalogaziorako prozedura eskuliburuetan jasotako araudia jarraituz.
- Irizpide “desberdinak”. Katalogatzaileak erregistroaren sailkapenari buruz eztabaidatzea beharrezkoa dela uste duenean, erregistroa katalogatu duen liburutegiarekin harremanetan jarriko da, ados jartzeko helburuarekin.

2. Erregistro osatugabeak

- Aurreko kargetatik datozenak. Osatugabeak katalogazio guztiak osatuko dira.
- Katalogazio berriak. Generorik ez duten eleberrien erregistroen kasuan, katalogatu duen liburutegiarekin harremanetan jarri beharko da T655 etiketa ez betetzearen arrazoia zein den jakiteko.

Bi kasuetan, aldaketen berri sareko liburutegi guztiei emango zaie. Posta elektronikoz jakinaraziko zaie hilerok; horrela zerrendan agertzen diren dokumentuen aleak dituzten liburutegiek dagozkion zuzenketak egin ahalko dituzte alearen datuetan CDU edota sarreran aldaketak egonez gero, etab.

Katalogazioarekin zerikusia duten beste gai batzuk azaltzen dira, eta lantaldeetako partaideen artean eztabaidatuko direla erabakitzen da.

Lantaldeetan jada katalogatzen ari diren liburutegiek nahiz katalogatzeko baimena ematen zaien liburutegiek parte har dezakete, eta baita aleen datuak programan sartzen dituzten liburutegiek ere.

Liburutegi Zerbitzutik hartutako erabakiak sareko gainerako liburutegie jakinaraziko zaizkie.

Puntu guztiak komentatu ondoren, bilera 13:30ean amaitzen da.

Gasteizen, 2005eko ekainaren 1ean

KATALOGAZIO KOOPERATIBORAKO PROPOSAMENAK

A) KATALOGATZEKO BAIMENA DUTEN LIBURUTEGIAK

1. Erregistro okerra:

Katalogatzaileak akats sintaktiko, ortografiko eta abar dituen erregistro bat aurkitzen badu, berehala zuzenduko du.

Autoritate eta gai sarreren akatsa balitz, zuzendu egingo du eta aldaketekin katalogatu duen liburutegiari posta elektronikoz abisatuko dio.

T040 etiketan **\$d** (zentro modifikatzailea) azpieremua gehitu beharko du.

2. Erregistro osatugabea:

Katalogatzaileak osatugabeko erregistro bat aurkitzen badu (esaterako eremuren bat falta da), osatu egingo du eta katalogatu duen liburutegiari posta elektronikoz abisatuko dio.

T040 etiketan **\$d** (zentro modifikatzailea) azpieremua gehitu beharko du.

3. Erregistro bikoiztuak:

Katalogatzaile batek bikoiztutako erregistroak aurkitzen dituzenean, erregistro bikoiztuen zerrenda Liburutegi Zerbitzura bidaliko du, eta Liburutegi Zerbitzuak erregistro horiek depuratu edo araztuko ditu.

B) KATALOGATZEKO BAIMENIK EZ DUTEN LIBURUTEGIAK

1. Erregistro okerra:

Aleen datuak gehituz geroan liburuzainak jada katalogatutako erregistro bat aurkitzen badu akats sintaktiko, ortografiko eta abarrekin, posta elektronikoz edota telefonoz katalogatu duen liburutegiari abisatuko dio erregistroa osatzeko.

Liburutegi katalogatzaileak zuzenduko du, eta **T040** etiketan **\$d** (zentro modifikatzailea) azpieremua gehitu beharko du.

2. Erregistro osatugabea:

Aleen datuak gehituz geroan liburuzainak osatugabeko erregistro bat aurkitzen badu (esaterako eremuren bat falta da), posta elektronikoz edota telefonoz erregistroa katalogatu duen liburutegiari abisatuko dio erregistroa osatzeko.

Liburutegi katalogatzaileak zuzenduko du, eta **T040** etiketan **\$d** (zentro modifikatzailea) azpieremua gehitu beharko du.

3. Erregistro bikoiztuak:

Aleen datuak gehituz geroan liburuzain batek erregistro bikoiztuak aurkitzen dituzenean, erregistroen zerrenda posta elektronikoz Liburutegi Zerbitzura bidaliko du, eta Liburutegi Zerbitzuak erregistro horiek depuratu edo araztuko ditu.